

**HAURREN ETA GAZTETXOEN ARTEAN**  
**EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO**  
**PROGRAMAK**  
**2022**

**BALANTZEA ETA JUSTIFIKAZIOA**

## **AURKIBIDEA**

- 1.- SARRERA**
- 2.- HELBURUAK**
- 3.- GARAPENA / KRONOGRAMA**
  - 3.1.- “Gurot” egitasmoa**
  - 3.2.- “Kalean olgetan” programa**
  - 3.3.- Kronograma**
- 4.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK**
- 5.- BALORAZIO KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA**
- 6.- AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENA**
- 7.- GASTUAK, SARRERAK ETA DEFIZITA**

### **ERANSKINAK:**

- I. ERANSKINA: “GUROT” egitasmoaren memoria 2022**
- II. ERANSKINA: “Kalean olgetan” / Txosten zehatza**

## 1.- SARRERA

Badira urte batzuk egitasmo puntualak garatu izan direna Euskara Zerbitzutik gaztetxoen aisialdia bideratzeko zein euren irakurzaletasuna bultzatzeko (asteburuetako aisialdia, Kontu kontari, Topagunearen programa,...).

Bidean geratu zirenez batzuk, “normaltasunaren” izenean gaindituztat eman direnak goi erakundeetatik (zapatuetako Gaztelekuak, asteburuetako aisialdia programa, Gaztezuloren harpidetza DBH 4. Mailako ikasleentzat,...), beste egitasmo berri batzuei eutsi genien 2019an gaztetxoek euskararen erabilerarako sustagarriak izan zitezkeelakoan.

Beraz, esparru honetan 2019an eutsi genion “Gurot” egitasmoari eta berau indartzea erabaki dugu hurrengo urteetan. Alkarbidetik koordinatutakoa eta 12-17 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako egitasmoa. Ezaguna denez, sakeleko telefonoetarako prestatutako aplikazio berezia du oinarri eta galdera-erantzunetako lehiaketa antolatzen da, epe bakoitzean sariak banatuz.

Bestalde, 2019an hasiera eman eta 2020-2021 aldian pandemiagatik eten beharra izan genuen “Kalean olgetan” egitasmoari berriro eutsi zaio: 5-12 urte bitarteko haurrei begirakoa, jolastoki eta parkeetan burutzekoa, gurasoen inplikazioa landuz (Donostiako “parketarrak” proiektuaren ildotik sortu zen ideia). Bere sasoian egindako txosten bateko paragrafoa ekarri behar hona: *“2016ko kale neurketaren datuengatik kezkatuta esperientzia pilotu bat izan genuen 2017an eta tajuz garatu da 2018ko azken hiruhilekoan, **“Kalean Olgetan”** lemapekoa eta 5-12 urte bitarteko haurrengan maila informalean eragiteko asmatua. Kaleko jolas lekuetan burutzen da eta osagaiak ditu gurasoen partaidetza lantzeko”*.

## 2.- HELBURUAK

Indarrean daukagun 2019-2022 eperako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana oinarri, Kudeaketa Plana moldatu da eta bertan aintzat hartu hurrengo helburuak honako egitasmo honekin :

**- Helburu estrategikoa: 1.- Euskararen ondorengoetaratzea.**

**Esparrua:**

**2. Irakaskuntza**

**2.4. Euskararen erabilera soziala hezkuntza esparruan aztertu eta bultzatzea**

**2.4.4. Irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietarako euskara harremanhizkuntza gisa bultzatzea (bestelako jardueren egitarau eta programa zehatzen bitartez)**

- 2.4.4.5.- Irakurzaletasuna bultzatu DBHko ikasleen artean (Gaztezuloren harpidetza)

**- Helburu estrategikoa: 2.- Euskararen erabilera**

**Esparrua:**

**5. Gune geografiko euskaldunenak**

**5.1. Herritarren gehiengo nabarmena elebidun izanik euskaldunenak diren gune geografikoetan euskara lehen hizkuntza funtzionala izan dadin neurriak hartzea (Toki erakundeak)**

**5.1.8. Arreta berezia jartzea haur eta gazteentzako eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz izan daitezen, jarduera-eskaintza egiazki zabala izan dadin eta eskaintza horren garapenean hezkuntza komunitate osoak (hezitzaileak, gurasoak, ikasleak) eta herri-administrazioek parte har dezaten**

**Esparrua:**

**7. Aisia eta kirola**

**7.1. Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea (Toki erakundeak)**

**7.1.1. Euskarazko jarduerak bultzatzea bereziki haur eta gazteei zuzendutako ekintzetan**

**- Helburu estrategikoa: Zehar lerroetakoak**

**14.8. Liburugintza (Toki erakundeak)**

**14.8.1. Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak sustatzea**

## 14.11. Teknologia berriak (Toki erakundeak)

### 14.11.1. Herritarrengan eragitea, batez ere gazteenengan, sarera informazio bila euskaraz ere jo dezaten

## 3.- GARAPENA - KRONOGRAMA

### 3.1.- “Gurot” egitasmoa

“Gurot” egitasmoa, Alkarbidetik koordinatutakoa eta 12-17 urte bitarteko gazte xoei zuzendua. Ezaguna denez, sakeleko telefonoetarako prestatutako aplikazio berezia du oinarri eta galdera-erantzunetako lehiaketa antolatzen da, epe bakoitzean sariak banatuz.

Alkarbidetako lan-mahaian egindako batzarretan oinarri nagusiak finkatu izan dira; pandemiaren oztopoak gaindituz, 2022an berrindartu egin da “Gurot” egitasmoa. Lehengo fasea apirilaren 4tik ekainaren 17ra garatu da, banakako lehiaketan zentratuz. Bigarren fasea ikasturte berriarekin hasi da eta eutsi egin zaio banakako lehiaketari urritik abendura. Ikasturte berri honetan 2023ko lehenengo hiru hilabeteetan garatuko da taldekako lehiaketa.

**Ikusi I. eranskina.**

### 3.2.- “Kalean olgetan” egitasmoa

Euskararen erabilera areagotzea helburu eta Gernika-Lumoko Udalak URE elkartearekin daukan harreman estua bitarteko, honako hauek izan dira “Kalean olgetan” kanpainaren oinarriak:

- 5/12 urte bitarteko haurrei eta euren gurasoei zuzendua.
- Astegunetan hiru egunetz maila informalean eragitekoa (plazetan eta jolas parkeetan; San Juan Ibarra plaza, San Kristobal Plaza, Pasealekua, Lurgorri eta ).
- Gurasoen partaidetza zuzena lantzeko jolasei buruzko fitxak banatzea aste batetik bestera eta talde jolasak eskaini.
- Zabalkundea ere in situ egitea, kanpainaren kronograma gurasoei emanda.

**II. Eranskinean dago 2022 urteko garapena.**

### 3.3.- Kronograma

Jarduerak	Urt	Ots	Mart x	Api r	Maia	Ekai n.	Uztai l	Abuz	Irai l	Urri a	Aza	Aben d
“Gurot” egitasmoa zabalkundea												

“Gurot” lehiaketa garatu												
Kalean olgetan egitasmoa (bi zatitan garatzekoa)												

#### **4.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK**

##### **Eragileak:**

- Euskara Zerbitzua: koordinazio lana, azpiegitasmo bakoitzerako hizkuntza irizpideak proposatzea, jarraipena egitea.
- Alkarbideko lan-mahai berezia: Alkarbideko koordinaziorako teknikariak bertan, egitasmoarekin bat egin dugun herriak gara partaide (Getxo, Erandio, Mungia, Leioa, Uribe Butroe, Txorierri, Uribe Kosta, Gernika-Lumo) “Gurot” egitasmoan.
- URE elkartea: “Kalean olgetan” egitasmoa garatzeko kontratazio bidez, Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean.

##### **Giza eta diru baliabideak:**

- Euskara Zerbitzuko HNT. Diru baliabideak ere Euskara Sailak jarri ditu.
- Eskoletako normalkuntzarako arduradunak: “Gurot” lehiaketaren zabalkundea eta dinamika ziurtatzeko.
- Alkarbideko teknikariak, “Gurot” egitasmoaren antolaketa eta koordinazio lanetarako.
- URE elkarteko arduradun bat eta bi begirale “Kalean olgetan egitasmoa garatzeko.


#### **5.- BALORAZIO KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA**

##### **Balorazio kuantitatiboa**

- **Kalean olgetan egitasmoaren dinamika ia egunerokoa izanik, eguneroko erabiltzaile kopurua.....**
- GURROT egitasmoari dagokionean, ahalegin handia egin da irakaskuntza zentroetako arduradunen bitartez, batik bat ikasturtearen hasieran. Partaide izan dira gure udalerrian 128 gaztetxo banakakoen lehiaketan, guztiak DBH sasoikoak (ikaslegoaren %12a).

## Balorazio kualitatiboa

- Partaide kopurua bikoiztu egin da 2022an, zabalkunde lanaren ondorioa gure ustez, eta bikoizte horrek adietzera ematen digu gaztetxoan aldetik “produktua” erakargarria dela neurri batean.
- Adierazle garrantzitsua dugu kaleko euskararen erabilerari buruzko 2021eko neurketa, Soziolinguistika Klusterrak hitzarmen bat bitarteko burutu zena (1989tik honako bilakaera aztertzeko datuak ditugu).




Ikus daitekeen bezala, alde nabarmenak ageri dira adin-tarteen artean:

- **Zenbat eta adin-tarte gazteagoa izan, orduan eta gehiago erabiltzen da euskara.** Honakoak izan dira euskararen erabilera-datuak: haurrek % 61,7, gazteek % 45,5, heldu gazteek % 40,3, heldu nagusiek % 38,5 eta adinekoek % 30,4.
- **Haurren eta gazteen erabilera** batezbestekoaren gainera kokatzen dira.
- **Heldu zein Adinekoetan** batezbestekotik behera kokatzen da.

Emaitzak bat datoz, hein batean, herri euskaldun gehienetan antzeman den joerarekin, alegia, haurrak eta gazteak batezbestekoaren gainera eta helduak behetik (Altuna Zumeta, Iñarra Arregi, eta Basurto Arruti 2022).

Laburbilduz, adinaren arabera euskararen erabilerari erreparatuta, esan daiteke erabilera altuenak talde gazteenetan izatea, hots, haur eta gazteen artean, herri euskaldunetan ohikoa den moduan, Gernika-Lumoko euskararen berreskuratze bidean, emaitza mesedegarria dela (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 38).

## HAURREN PRESENTZIAREN ERAGINA ERABILERAN – BILAKAERA



*Iturria: Soziolinguistika Klusterra*

- Haurren presentziaren araberako bilakaerari dagokionez, haurrak bakarrik daudenean euskararen erabilera gora egin du azken bost urteetan.
- Nagusiak bakarrik daudenean ere, zertxobait gora egin du euskararen erabilera. Haurrak eta nagusiak nahasita daudenean, aldiz, zertxobait behera egin du euskararen erabilera.
- Azken hamabost urteei erreparatuz gero, haurrak bakarrik daudenean nabarmen egin du behera euskararen erabilera (% 72,3 2006an, % 57,5 2021ean), haurrez eta nagusiez osatutako taldeetan zertxobait behera, eta nagusien artean ez da nabarmentzeko aldaketarik gertatu.

## 6.- AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENA

Arestiko balorazioa kontuan, haurren (2-14 urte bitartekoak) hizkuntza ohituretan gehiago eragiteko moduak aztertu behar dira, haurrak kalean eta bakarrik ari direnean beheranzko joera nabarmena dagoelako erabilera. Ezin ahaztu nerabezaroan finkatzen direla hizkuntza ohiturak “askatasunean”, hau da, familiarekiko loturak askatuz gaztarorako bidea egiten delako eta bizitza osorako hizkuntza jokabideen oinarriak landatzen direlako.



## **7.- GASTUAK ETA DEFIZITA**

### **Gastuak**

Gestionet enpresa (Gurot-en edukiak elikatzea eta mantentzea)	447,84
Gestionet enpresa (Gurot-en aplikazioa egokitzea eta mantentzea)	447,87
OCR (Gurot-en sormena, koordinazioa, publizitatea, sariak...2022ko lehenengo sei hilabeteak)	432,80
OCR (Gurot-en sormena, koordinazioa, publizitatea, sariak...2022ko gainerako sei hilabeteak)	432,80
DANOK management (taldekako finala antolatzea)	1.933,58
GUROT aplikaziorako galdera berriak (Eider Rodriguez)	569,41
Gaztetxoentzat hitzaldiak ("AITTU!" kanpaina)	377,57
GUROT (bono-saria)	50,00
Kalean Olgetan kanpainaren kontratazioa (Xabier Goiria Bonilla)	10.890,00
<b>Guztira gastuak</b>	<b>15.581,87</b>

### **Sarrerak**

Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza 2022	819,67
<b>Guztira sarrerak</b>	<b>819,67</b>

### **Defizita**

Gastuak	15.581,87
Sarrerak	819,67
<b>Defizita</b>	<b>14.762,20</b>

Gernika-Lumon, 2023ko urtarrilean.

Iñigo Magunagoikoetxea  
Euskara Arloko Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia  
Hizk. Normalizaziorako Tek.

## I. ERANSKINA

---

# GUROT, EUSKAL GALDEREN UNIBERTSOA

---

MEMORIA TXOSTENA  
2022

Datozen orrialdeetan, **GUROT, euskal galderen unibertsoa** aplikazioak 2022 urtean zehar izan duen ibilbidea azalduko da, egon diren jardunbide nagusiak azalduz.

### KANPAINAKO PARTE HARTZAILEAK

Hasteko eta behin, **GUROT** tribial jokoaren parte hartzaileak zeintzuk zareten aipatuko da:



**Getxo**  
*bizi ezazu*



## KRONOGRAMA

2022 urteari dagokion jarduna bi faseetan antolatzea erabaki genuen urte hasieran egindako batzarrean (2022/03/08). Horrez gain, **bi faseetan banakako lehiaketan zentratuko ginela adostu genuen.**

Besteak beste, jarraian dituzue lantaldean adostu genituen daturik garrantzitsuenak labur-labur jasota:

### LEHENENGO FASEA

- **Epea:** lehendabiziko fasea apirilaren 4tik ekainaren 17ra bitartean izan da eta banakako lehiaketan zentratu gara.
- **Zozketa:** lehenengo faseari dagokion zozketa ekainaren 17an izan da.
- **Saria:** kasu honetan, *Gamer Kit* bat izan da oparia eta irabazlea Derioko Ruben izan da. Sari-banaketa egin ostean, **GUROT** aplikazioaren sare sozialetan partekatu da argazkia.

### BIGARREN FASEA

- **Epea:** bigarren fasea, ostera, 2022-2023ko ikasturte berriarekin batera jarri dugu martxan.
- Kasu honetan ere, banakako lehiaketan zentratu gara eta urriaren erdialdetik abenduaren amaiera arte izan da lehiaketa.
- **Zozketa:** bigarren faseari dagokion zozketa abenduaren 16an izan da.
- **Saria:** kasu honetan, patinete elektriko bat izan da saria eta Mungiako Oier izan da. Sari-banaketa egin ostean, **GUROT** aplikazioaren sare sozialetan partekatu da argazkia.

## TALDEEN ARTEKO LEHIAKETA ASINKRONIKOA

Datorren urtean, berriz, taldeen arteko lehiaketan zentratuko gara. Horretarako, hasteko eta behin, iaz egin genuen bezala, udal edota eskualde mailako lehiaketa asinkronikoa antolatuko dugu.

Taldeen arteko lehiaketa antolatzeko orduan, honako kontuak zehaztu behar ditugu, besteak beste:

- **Euskarriak:** taldeen arteko lehiaketa asinkronikoaren berri emateko, euskarri egokiak sortu beharko ditugu. Haatik, oso garrantzitsua izango da publizitate euskarri horietan lehiaketari buruzko informazio garrantzitsuena txertatzea: lehiaketan parte hartzeko baldintzak, taldeak osatzeko jarraibideak, lehiaketaren epeak eta sariak, esaterako.
- **Lehiaketa asinkronikoaren epea:** lehiaketako informazioa alde aurretik prestatutako euskarrien bidez zabalduko dugu. Era berean, lehiaketa asinkronikoaren informazioaren zabalkundea izen ematearekin batera antolatuko dugu.
- **Talde bezala parte hartzeko baldintzak zehaztu behar ditugu:** iaz egin genuen bezala antolatuko dugu. Kasu honetan, hiru lagunez osatutako taldeak osatu beharko dituzte parte hartzaileek.
- Lehiaketa asinkronikoaren epea amaitzen denean, udal eta mankomunitate bakoitzeko bi talde onenak zeintzuk diren jakingo dugu.
- Bukatzeko, herri edo eskualde bakoitzeko bi talde onenekin aurrez aurreko final handia ospatuko da.
- Horrez gain, orain arte egin dugun bezala, **bi mailako zabalkundea** egingo dugu: alde batetik, **OROKORRA**; eta, bestetik, **UDAL/ESKUALDE mailakoa**.

## AURREZ AURREKO FINAL HANDIA

Aurrez aurreko final handia 2023ko udaberri bueltan ospatuko genuke, Aste Santuko oporren aurretik.

Finala kudeatzeko hornitzaileari dagokionez, jasotako proposamenen artean, **DANOK** enpresaren alde egitea erabaki zen lantaldean, hau da, iazko finala kudeatu zuten enpresarekin egingo dugu final handia, euren esperientzia kontuan hartuta.

2022 urteari dagokion kronograma eta daturik garrantzitsuenak aipatu ostean, jarraian, lehendabiziko faseari dagozkion datuak aurkeztuko zaizkizue.

## ERABILTZAILEAK

Atxikitako taula honetan dituzue 2022an zehar aplikazioan sartu diren erabiltzaile kopurua zehaztuta (fase bakoitzaren arabera daukazue bereizita).

Udalerría	1. FASEA	2. FASEA
<b>Gernika-Lumo</b>	16 erabiltzaile	128 erabiltzaile
<b>Getxo</b>	15 erabiltzaile	184 erabiltzaile
<b>Mungia</b>	22 erabiltzaile	224 erabiltzaile
<b>Txorierriko mankomunitatea</b>	130 erabiltzaile	264 erabiltzaile
	Derio: 51	Derio: 92 erabiltzaile
	Larrabetzu: 11	Larrabetzu: 18 erabiltzaile
	Lezama: 14	Lezama: 27 erabiltzaile
	Sondika: 24	Sondika: 81 erabiltzaile
	Loiu: 1	Loiu: 4 erabiltzaile
	Zamudio: 29	Zamudio: 42 erabiltzaile
<b>Beste udalerrí bat</b>	13 erabiltzaile	77 erabiltzaile
<b>GUZTIRA</b>	<b>196 erabiltzaile</b>	<b>877 erabiltzaile</b>

Bestetik, adinari dagokionez, jarraian datorren taulan daukazue erabiltzaile kopurua zehaztuta jaiotze-urtearen arabera. *Kontuan hartu behar dugu gure aplikazioa, batik bat, 12-17 urte bitarteko gazteei dagoela zuzenduta.*

Jaiotze urtea	1. fasea	2. fasea
	Erabiltzaile kopurua	Erabiltzaile kopurua
1958		1
1962		1
1968	1	1
1971	1	1
1972		1
1973		11
1975		2
1977	2	1
1978		1
1979	1	1
1981	1	1
1983		1
1985		1
1987		1
1990	1	4
1991		1
1992	1	1
1993	2	6
1994		3
1995		1
1999	3	3
2000	4	6
2001		14
2002	2	2
2003	1	1
2004	2	4
2005	7	9
2006	20	17
2007	32	26
2008	41	22
2009	75	84
2010		350
2011		296
<b>Guztira</b>	<b>196 erabiltzaile</b>	<b>877 erabiltzaile</b>

## SARE SOZIALAK

Gaur egun sare sozialak ezinbesteko aisialdi-tresna bihurtu dira eta interakzio zein estimulu berriak sortzen ditu. Mundu birtuala eguneroko kontua bihurtu zaigu eta aipatu bezala, sare sozialak nagusi dira horretan.

Beraz, beharrezkoa izan den informazio guztia gure sareak hornituz (Instagram, Facebook eta Tik-Tok kontuetan) eta parte hartzen duten udalerrietako edota mankomunitateko sareetatik elkarbanatu da.

Orain arte bezala, sare sozialen euskarriez arduratu den **hornitzailea OCR branding** izan da. Hala ere, Alkarbidetik ere egin dugu sare sozialetako errefortzu-lana: sareetan postak argitaratu ditugu, Instagram kontuan istorioak partekatu ditugu, jarraitzaile berriak lortzen saiatu gara eta gazteek izan dituzten zalantza puntualak erantzun ditugu, besteak beste.



**INSTAGRAMA** izan da gehien erabili dugun sare soziala. Bertan partekatu ditugu hurrengo atalean dituzuen postak.  
***Une honetan 430 jarraitzaile ditugu.***



Horrez gain, **TIK-TOK** aplikazioa ere erabili izan dugu erronketarako. Dena dela, esan beharra dago, TIK-TOK bidez egindako erronkek ez dutela arrakasta askorik izan.



**FACEBOOK-a**, aldiz, fase honetan ez dugu askorik erabili izan, adin horretako gazteen artean askorik ez delako erabiltzen).  
***Une honetan 392 jarraitzaile ditugu.***

---







**Maiatzak 7**

Bareak, lagunak, upariak, zozketak eta **ASKOZ GEHIAGO!**  
Inlata eta sariak irabazi! Prendat!

Ekimaren 15era arte egun a etan!

#euskalgaldereunibertsoa #nikeregurot #gurotapp #Gamer #sariak  
@alkaregaz @mungi-gazte @mungieudala



**Maiatzak 18**

**ZORIONAK!**

Badugu gamekit-aren irabazlea!

Urteko lehen irabazlea da, baina ez da bakarra izango. Adi egon gure sareetara! Zue izango zara gure hurrengo irabazlea?

#euskalgaldereunibertsoa #nikeregurot #gurotapp #Gamer #sariak  
@alkaregaz @mungi-gazte @mungieudala



**Maiatzak 23**

Gernika-Lumoko, Getxoko, Mungia edo Txorierrikoa bazara, sarri eskuratu dezakezu.

Bai, bai, ordu entzun duzu. Guretzat juleta eta gamekit oso bat eskuratu dezakezu aukera izango duzu: ordenagailuko alfonbrakoa entzungailuak, leklatuak eta sagua.

Euskal galderean aplikazioaren eronla berriak dituzu zure zain, jolastu eta irabazi! Ekimaren 15era arte.

#euskalgaldereunibertsoa #nikeregurot #gurotapp #Gamer #sariak  
@alkaregaz @mungi-gazte @mungieudala

**Ekainak 17**

**ZORIONAK!**

Badugu gamekit-aren irabazlea!

Urteko lehen irabazlea da, baina ez da bakarra izango. Adi egon gure sareetara! Zue izango zara gure hurrengo irabazlea?

#euskalgaldereunibertsoa #nikeregurot #gurotapp #Gamer #sariak  
@alkaregaz @mungi-gazte @mungieudala

Bigarren fasean egun hauetan argitu dira postak:

- Irailak 29 (txapelketa berria martxan)
- Urriak 15 (jolastu, puntuak pilatu eta irabazi)
- Azaroak 4
- Azaroak 25 (jolasteko azken egunak)
- Irabazlearen argazkia

**Irailak 29 (1. posta)**



**Ez partekatu. Ez kontatu lagunei. Inori ere ez.**  
Gurotik erronka berri bat abiarazi da eta patinete elektriko bat irabazteko aukera izango duzu.

Zer egin behar duzu? Erabatu da!  
1. Gurot aplikazioa instalatu eta telefonoa deskargatu edo erregistratu. Berreginatu sareta.  
2. Beldu erabakia eta aukera galdetuz.  
3. Eskuratu puntuak eta irabazi sareta. Aukera irabazteko!

**Irabazteko aukera?**  
Mundu guztian hainbat sareta irabazteko Gernika-Lumo, Mungia, Txorierri eta Gernika-Lumoko egun behar izan ditu 12-17 urte bitartekoak izan.  
Lehenak, irabazteko aukera irabazteko 7% gogoratu. Inori ere ez kontatu eta patinete elektriko zure izango da!

#NikereGurot #Euskalgaldereenunbertsoa #supersariak #gurotapp #euskaltiketik #galdereak #gurot #galdereak

**Urriak 15 (2. posta)**



**Gurot guremiz! Txapelketa berri bat abiarazi da!**  
Eta patinete elektriko bat jolastu eta irabazi.

Zer??? Guremiz ez duzue Gurot aplikazioa erabiltzen??  
Gurot euskaraz guremiz aplikazioa du. Klokak, musikak, natura, aisia, zientzia, bezalako gaiak jolasteko aukera izango duzu.


Eta guremiz sareta irabazteko aukera izango duzu!

Erabatu sareta, galdetuz eta irabazteko aukera izango duzu. Erabatu sareta, galdetuz eta irabazteko aukera izango duzu.

Lehenak, irabazteko aukera irabazteko 7% gogoratu. Inori ere ez kontatu eta patinete elektriko zure izango da!

#NikereGurot #Euskalgaldereenunbertsoa #supersariak #gurotapp #euskaltiketik #galdereak #gurot #galdereak

**Azaroak 4 (3. posta)**



**Musika, kirola, natura, aisia, zientzia eta zehazki patinete elektriko bat eskuratu!**

Gurot jolastu galdetuz eta irabazteko aukera irabazteko 7% gogoratu. Inori ere ez kontatu eta patinete elektriko zure izango da!

Djaren galdetuz eta irabazteko aukera irabazteko 7% gogoratu. Inori ere ez kontatu eta patinete elektriko zure izango da!

Deskargatu Gurot aplikazioa zure telefonora eta, erregistratu eta irabazteko aukera irabazteko 7% gogoratu. Inori ere ez kontatu eta patinete elektriko zure izango da!

#NikereGurot #Euskalgaldereenunbertsoa #supersariak #gurotapp #euskaltiketik #galdereak #gurot #galdereak

**Azaroak 25 (4. posta)**



**Adi! Aurten zuretzat batek ez dio Olatzeren operariari itzaron behar izango! Guroten patinete elektrikoaren irabazteko izango da eta!**

Jolastu sareta, galdetuz eta irabazteko aukera irabazteko 7% gogoratu. Inori ere ez kontatu eta patinete elektriko zure izango da!

Erabatu sareta, galdetuz eta irabazteko aukera irabazteko 7% gogoratu. Inori ere ez kontatu eta patinete elektriko zure izango da!

Deskargatu Gurot aplikazioa zure telefonora eta, erregistratu eta irabazteko aukera irabazteko 7% gogoratu. Inori ere ez kontatu eta patinete elektriko zure izango da!

#NikereGurot #Euskalgaldereenunbertsoa #supersariak #gurotapp #euskaltiketik #galdereak #gurot #galdereak

## GALDERA BERRIAK

- ✚ Orain arte aplikazioan sartuta egon diren galdera luzeenak laburtu eta egokitu ditugu.
- ✚ Horrez gain, 2022an zehar, **453 galdera berri txertatu ditugu aplikazioan** (galdera orokorrak eta tokikoak sortu ditugu).
  - 353 galdera Eider Rodriguez idazle errenteriarrek egin ditu.
  - 100 galdera Alkarbideko idazkaritza teknikotik prestatu ditugu.
- ✚ Une honetan **aplikazioan 2.040 galdera ditugu.**
- ✚ Aurrera begira eta proposamen bezala, egokia izan daiteke bi hilabeterik behin, adibidez, galdera berriak txertatzea. Kasu honetan, interesatzen zaizkigun galderak tokiko galderak dira eta hauetan jarri beharko genuke arreta. Tokiko galderak sortzeko ezinbestekoa izango da informazioa izatea eta hizkuntza atalean arreta berezia jartzea.

## INSTAGRAMEKO GALDERAK

Astero-astero gure Instagram kontuan istorioak (aplikazioan txertatuta ditugun galderak) partekatu ditugu.

Kasu honetan, emaitza nahiko eraginkorrak lortzen gabiltzala ikusita, bide honetatik jarraituko dugu datorren urtean ere.

<b>IRAILAK 30</b>	Nola izena du Pello Reparazen taldeak?	28 erabiltzailek erantzun dute galdera
<b>URRIAK 3</b>	Nongoa da J Martina taldea?	21 erabiltzaileek erantzun dute galdera
<b>URRIAK 5</b>	Zer esan nahi du <i>edoskitu</i> hitzak?	49 erabiltzailek erantzun dute galdera
<b>URRIAK 10</b>	Zer da tomatea?	30 erabiltzailek erantzun dute galdera
<b>URRIAK 13</b>	Nongoa da Kerobia taldea?	34 erabiltzailek erantzun dute galdera
<b>URRIAK 17</b>	Nondik dator <i>aberats</i> hitza?	27 erabiltzailek erantzun dute galdera
<b>URRIAK 19</b>	Zein herriko festetan botatzen da teila bat uretara?	24 erabiltzailek erantzun dute galdera
<b>URRIAK 24</b>	Non dago Lauro ikastola?	24 erabiltzailek erantzun dute galdera
<b>URRIAK 27</b>	Nongoa da Julian Iantzi telebista aurkezlea?	31 erabiltzailek erantzun dute galdera
<b>AZAROAK 2</b>	Nork kantatzen du Aldapan gora kantua?	25 erabiltzailek erantzun dute galdera
<b>AZAROAK 8</b>	Zein da munduan gehien hitz egiten den hizkuntza?	29 erabiltzailek erantzun dute galdera
<b>AZAROAK 14</b>	Non dago Picassoren <i>Gernika</i> artelana?	23 erabiltzailek erantzun dute galdera
<b>AZAROAK 17</b>	Badator Euskaraldia. Noiztik nora izango da aurtengoa?	22 erabiltzailek erantzun dute galdera
<b>AZAROAK 23</b>	Zein da marmitakoaren osagai nagusia?	22 erabiltzailek erantzun dute galdera
<b>AZAROAK 28</b>	Zein herri da ezaguna bere piperrengatik?	23 erabiltzailek erantzun dute galdera
<b>ABENDUAK 14</b>	Zer da gibelurdina?	26 erabiltzailek erantzun dute galdera

## II. Eranskina

# Kalean lgetan

2022ko apirila/ekaina eta  
iraila/azaroa.

- Txostena -

**AEiOU** Busturialdea  
Aisialdi Ekitaldiak, Irribarrez Ospatzeko Uneak  
665703586 / xabigoiria@gmail.com

Xabier Goiria Bonilla  
IFK: 78887012w  
Carlos Gangoiti 42, 2 DCH  
48300 Gernika Lumo, Bizkaia



gernika-lumoko  
euskara zerbitzua



# Kalean Olgetan 2023

## Aurkezpena:

### Egitasmoaren izena:

Kalean Olgetan 2022 - 2017ko "Kalean Olgetan 2017 – egitasmo pilotua"ren, Kalean Olgetan 2018 eta Kalean Olgetan 2019ren jarraipena.

### Erakunde bultzatzaileak:

Gernika-Lumoko Udalaren Euskara Arloa.

### Erakunde gauzatzailea:

AEIOU Busturialdea.

### Proiektuaren kokapena:

Gernika-Lumo (Bizkaia).

### Garapenaren noiztik-norakoa eta ordutegia:

48 jardunaldi. 2022ko apirilaren 27tik-ekainaren 17ra eta irailaren 28tik azaroaren 18ra asteazken, ostegun eta ostiraletan, arratsaldeko 17:00tik 19:00ra.

### Hartzaileak:

Gernika-Lumoko 5-12 urte bitarteko ume, gaztetxo eta beraien arduradunak.

### Zuzeneko onuradunak:

Gernika-Lumoko ume, gaztetxo eta familiak orokorrean.

### Giza baliabideak:

Bi/hiru begirale eta koordinatzaile bat.

### **Plaza ezberdinetara joatean egindakoa:**

- Ume eta gazteentzako euskal musikarekin plazaren gunek bat girotu eta mikroarekin argibideak eman.
- Jolas-kutxako materialak banatu eta jaso.
- Ume eta gurasoei eguneko jolasen jarraibideen orriak banatu. Asmoa, egitasmoaren aurkezpen labur bat egiteaz gain, eguneko jolas bi aurkeztea izan da. Bata jolas-kutxako jolas edo jostailu baten aurkezpena eta bestea ume edo/eta gaztetxoek elkarrekin jolasteko jolas bat aurkeztea izan da.
- Jolasak dinamizatu.
- Argibideak eman.
- Jolas-Kutxaren erabileraren azterketa kuantitatiboa.

### **Jendaurrearekiko azalpena:**

Plazan emandako egitasmoaren azalpentxoak.


- Kanean Olgetan umeek elkarrekin, plaza eta parkeetan, jolastea bultzatzea helburu izan duen egitasmoa izan da.
- 5-12 urte bitarteko ume eta gaztetxoei zuzendua. <6 urte bitartekoek gurasoen laguntzarekin eta 7 urtetik aurrerakoak beraien kabuz moldatu dira.
- Bi orduko saioan zehar, 17:00-19:00, jolas-kutxako materialak mailegatu dira. Jolasa jaso eta itzultzerakoan izen-abizenak eta adina eman behar izan dira.
- Herriko plaza ezberdinetan garatu den egitasmoa izan da.

### **Jolas-kutxako materialak zeintzuk izan dira:**

Animalien Puzzleak, Antzara-jokoa, Arrautza-lasterketa, Frisbee, Golf, Hankapaluak, Hankapotoak, Klarionak, Kono-batze-lasterketa, Mólky, Partxisa, Pilotak, Puxtariak, Sokasaltoak, Tortolosak, Twisterra, Txapak, Uztaiak, Yo-Yoa, Ziba.



## Egitasmoaren logoa:



## Egitasmoan erabilitako espazioak:

- Pasilekua: Futbol Kantxa. Euriarekin arkupean.
- San Kristobal Plaza. Euriarekin etxebizitzetako etarte zabaletan.
- San Juan Ibarra Plaza. Euriarekin Merkatu Plazan.

## 48 jardunaldien egutegia:

Apirila:						
25	26	27 Pasilekua	28 San Kristobal	29 San Juan Ibarra	30	01
Maiatza:						
2	3	4 San Juan Ibarra	5 Pasilekua	6 San Kristobal	7	8
9	10	11 San Kristobal	12 San Juan Ibarra	13 Pasilekua	14	15
16	17	18 Pasilekua	19 San Kristobal	20 San Juan Ibarra	21	22
23	24	25 San Juan Ibarra	26 Pasilekua	27 San Kristobal	28	29
Ekaina:						
30	31	1 San Kristobal	2 San Juan Ibarra	3 Pasilekua	4	5
6	7	8 Pasilekua	9 San Kristobal	10 San Juan Ibarra	11	12
13	14	15 San Juan Ibarra	16 Pasilekua	17 San Kristobal	18	19

Iraila:						
		28 Pasileku a	29 San Kristoba l	30 San Juan Ibarra		
Urria:						
3	4	5 San Juan Ibarra	6 Pasileku a	7 San Kristoba l	8	9
10	11	12 San Kristoba l	13 San Juan Ibarra	14 Pasileku a	15	16
17	18	19 Pasileku a	20 San Kristoba l	21 San Juan Ibarra	22	23
24	25	26 San Juan Ibarra	27 Pasileku a	28 San Kristoba l	29	30
31						
Azaroa:						
	1	2 San Kristoba l	3 San Juan Ibarra	4 Pasileku a	5	6
7	8	9 Pasileku a	10 San Kristoba l	11 San Juan Ibarra	12	13
14	15	16 San Juan Ibarra	17 Pasileku a	18 San Kristoba l	19	20

## Helburuak:

Kalean Olgetan 2022 egitasmoaren zuzeneko eta zeharkako helburuak ondorengoak izan dira:

### Egitasmoaren zuzeneko helburuak:

- Kalean Olgetan 2022, gurasoak, umeak eta gaztetxoak, plaza eta parkeetan, elkarrekin jolasten jartzea bultzatzea helburu duen egitasmoa izan da.
- Euskararen normaltasunaren aldeko inferentzia ez zuzena egitea. Eta ez ume eta gaztetxoaren artean bakarrik. Baita ama, aita, amona, aitona edo haur horrekin dagoen helduarengan ere.

Ezinbesteko baldintza da hori; kontua ez baita haurrak entretenituak edukitzeko tartea izatea, gizartean eragin nahi duen ekintza programa bat izatea baino.

### **Egitasmoaren zeharkako helburuak:**

- Gero eta gutxiago erabiltzen diren eta maila askotan onuragarriak diren jolas tradizionalak edo/eta “betiko” jolasak, giro euskaldun baten barruan, berreskuratzea, erakustea eta erabiltzea.
- Kaleetan eta parkeetan euskararen erabilera handitzea.
- Familiei, umei eta gaztetxoei euskaraz jolasteko baliabideak eskaintzea.
- Familiak, umeak eta gaztetxoak euskararen inguruan biltzeko gunea sortzea.
- Herriko jolasguneetan euskararen presentzia areagotzea.

Jolas-dinamizazioen asmoa haurrak eta gaztetxoak hezkuntza ez formaleko eta aisialdiko hainbat gaietan trebatzea da, beraz, euskarak aisialdian eta kalean ere lehen lerroko lekua izatea gure helburua ere bada.

### **Metodologia:**

Kalean Olgetan 2022 egitasmoaren metodologia, Kalean Olgetan 2017 - Egitasmo pilotuaren eta Kalean Olgetan 2018 eta Kalean Olgetan 2019 egitasmoen metodologiaren jarraipena izan da, hau da, Kalean Olgetan 2017-2019ren osteko laugarren fasea: Egitasmoaren egonkortzea.

Kalean Olgetan 2017, 2018 eta 2019 kaleratzeko, oinarri metodologikoaren hiru faseak ondorengoak izan ziren.

#### **Lehen fasea: oinarrizko azterketa.**

2016ko Euskararen erabileraren kale neurketaren datuen irakurketa eta baita horien inguruko balorazioa eta gogoeta ere egin zen.

Azterketa hori, lehenik, Gernika-Lumoko Euskara Zerbitzuak egin zuen eta ume, gaztetxo eta parkeetan jasotako emaitzei neurri batean erantzuna emateko asmoarekin URE Elkartearekin 2017ko martxotik aurrera elkarkidetzan haritu zen egitasmoari forma emanez.

Gernika-Lumoko Udalaren Gazteria Arloarekin ere batzarrak egin ziren, egitasmoa, aurreikusi bezala, emaitza onak emanez gero, 2018ra begira eta aurrerantzean egitasmoa aurrera ateratzeko Euskara arloaz gain, Gazteria Arloaren laguntza izateko konpromezua lortuz.

2017ko maiatza eta ekainean egitasmo pilotua non garatzeko parkeen, erabiltzaileen adin tartekak, kopuruak, espazioen segurtasuna, espazioen egokitasuna eta egun egokienak zeintzuk diren aztertu zen: Malosteko Parkean, Pasealekuan, San Juan Ibarra Plazan, San Kristobal Plazan, Santa Luziako Parkean eta Lorategietako Pistetan.

Jasotako datuak eta irudiak aztertu ostean baliabideen optimizaziorako aproposena egitasmoa, 17:00-19:00 ordutegian, asteazken, ostegun eta ostiraletan tartekatuz Pasealekua, San Juan Ibarra eta San Kristobal Plazetan aurrera eramatea erabaki zen. Eguraldiarekiko alternatibak ere oso kontutan hartuak izan ziren.

### **Bigarren fasea: materialen aukeraketa eta prestaketa.**

Bigarren fasean 2017ko udaldiko oporraldiaren ostean, URE taldeak adin ezberdinetarako Jolas-Kutxa osatu duten elementuak hala-nola Jolas Kutxaren diseinua, informazioa jasotzeko fitxak, erabiltzaileen artean eta inguruan banatzeko Jolas-Fitxak, egon ez diren kasuetan jolasen arauak euskaraz prestatzen, eta abar haritu zen.



## **Hirugarren fasea: egitasmoa plazaratzea.**

Hirugarren fasean, aurreko urratsen emaitza eskuartean, egitasmoa plazaratu zen. 21 jardunaldi. 2017ko urriak 18tik- abenduak 01era asteazken, ostegun eta ostiraletan, arratsaldeko 17:00tik 19:00ra.

Ekintzak noiz eta non egingo ziren ez zen aurretiaz zabaldu, plazetako ohiko erabiltzaileen migrazioerik ez sortzeko eta ahal bezain zeharkako modu ez inbaditzailean jokatzeko asmoarekin.

## **Aurrekontua:**

Kalean Olgetan 2022 Egitasmo aurrekontua ondorengoa izan da:

Egitasmo honen aurrekontua 10.890€ (9.000€ +1.890€ BEZ) izan da, ondorengo barne hartuz:

- Begiraleak, koordinazioa, zabalkunde eta antolaketa lanak.
- Jolas Kutxarako materialak.
- Girotzako soinu ekipoaren mantenua.
- Ekintza egunetan banatzeko informazio orriak, informazio kartelak, plastifikazioak eta fitxak.

## **Banatuak materialak:**

### **Eguneko Jolas-Fitxak:**

- Jolas-Fitxa 4 osagai dituen alde bietatik inprimatutakoa A5 tamainuko orri bildumagarri bat da.
- Aurreko aurpegian Kalean Olgetan logoa, Kalean Olgetan egitasmoaren azalpentxo bat eta lagunekin jolasteko eguneko proposamenak daude.
- Atzeko aurpegian Jolas-kutxako jolas baten aurkezpena dago.





# Kalean Olgetan

- Kalean Olgetan umeek elkarrekin, plaza eta parkeetan, jolastea bultzatzea helburu duen egitasmoa da.
- 3-12 urte bitarteko ume eta gaztekoie zuzendua. 3-6 urte bitartekoek gurasoen laguntzarekin eta 7 urtetik aurrerakoak beraien kabuz moldatuko dira.
- Bi orduko saioan zehar, 17:00-19:00, jolas-kutxako materialak mailegatuko dira. Jolasa jaso eta itzutzerakoan izen-abizenak eta adina eman beharko dira.
- Herriko plaza ezberdinetan garatuko den egitasmoa da.

## Lagunekin jolasteko eguneko proposamena:

### ASTEKO EGUNAK (BALDIAREKIN)

Jokalaritza gutxiak iragan jarriko dira bote bestearren atzean. Iragan lehenengo dagonek baloia eskuan edukiko du.

Umeek asteko egunak banan-banan esan beharko dituzte; egun bakoitzean esatean, baloia airea bote eta atzeko jokalaritza hartu egin beharko du. Egun bakoitzari baloia botatzeko eta hartzeko arau bereratik dagozkin ordea.

**ASTELEKIN:** lehenengo jokalaritza baloia paretaren kontra botako du eta bere atzean dagoen jokalaritza, hau da, harrako bigarrenak, baloia airean hartu beharko du.

**ASTIARTIA:** bigarren jokalaritza baloia paretaren kontra botako du eta bere atzean dagoen jokalaritza lurrean bote eman ondoren hartu beharko du baloia.

**ASTAZKENA:** hirugarren jokalaritza baloia lurrean botako du eta bere atzean dagoen jokalaritza lurrean bote eman ondoren hartu beharko du baloia.

**OSTEGUNA:** laugarren jokalaritza baloia paretaren kontra botako du, lurrean botea emango du eta bere atzean dagoen jokalaritza airean hartu beharko du.

**OSTRALA:** bostgarren jokalaritza baloia airea botako du eta bere atzean dagoen jokalaritza airean hartu beharko du.

**LARUNBATA:** seigarren jokalaritza baloia paretaren kontra botako du eta bere atzean dagoen jokalaritza txalo jo eta baloia airean hartu beharko du.

**IGANDEA:** zazpigarren jokalaritza baloia paretaren kontra botako du eta bere atzean dagoen zortzigarren jokalaritza bi txalo jo eta airean hartu beharko du baloia.

Gauza bera egin beharko litzateke norbaitek huts egin arren.

Asteko egunen ondoren jarraitu galar ere jolas daitake. Jolasa bitarteko jokalaritza bakoitzak nahit duen asteko eguna esango du eta egun horri baloia botatzeko dagozkin modua botako du. Hartan, atzeko jokalaritza adierazteko baloia era egokian hartuko.

**ONDO PASA!**



## ANIMALIEN PUZZLEAK

### PUZZLEEN HISTORIA

1700en jarduera ingururako, mapa-diseinatu buruko adituak, bi urtekoak erabiltzen zuten buru-irudiak erabiltzen zuten. Hiru berak erabiltzen zuten antzeko baten, heriotza mugen inguruan maita eta egur taule baten gainean prestatzeko erabiltzen zuten. Horria izan zen, bi maita izan gabe, buru-irudiaren historiaren hasiera.

Antzizko hiru heriotza baten umeen gogorak heriotza-irudiak gisa berrak erabiltzeko erabili zen Britainia Handian. Irudizkoak bere erabilera edukibaren itxar 1820ra inguru arte iratu zuten.



### Haurren adinarekin erabiltzeko puzzleen tamaina gidatzailea:

ADINA	PIZZA ERABILTZEKO
3-6 urte	4/5 pieza bakoitza
3-8 urte	6/7/12 pieza bakoitza
3-8 urte	36/25/24/18 pieza bakoitza
4-8 urte	36/45/24/18 pieza bakoitza
6-8 urte	100/150/200 pieza bakoitza
8-11 urte	200-400 pieza bitarteko pieza
>11 urte	500 pieza bakoitza

Ondoren haurren adinarekin erabiltzeko puzzleen tamaina estimatuaren gida erabiltzeko da. Taula hau orientagarria baino ez da, zeren haur bakoitzaren garapeneren bitartean eta aldiaren arabera aldatu da, eta hainbat bertsio hartzea izan behar du.

### INFORMAZIO OROKORRA:

#### Jolasaren helburua:

Helburua hasierako irudia berriro osatzea da.

#### Edakia:

- 9 pieza bakoitza bi aldiak eta txalura.
- 12 pieza bakoitza bi aldiak eta txalura.
- 15 pieza bakoitza bi aldiak eta txalura.
- Informazio orria.

Jokalaritza: puzzle bakoitzeko haur bat.



Animalien puzzle hauen irudirik adina: 3 urtetik aurrera.

#### Jolasaren garapena:

- Pizteak dagozkin tokian elkar lotu behar dira hasierako irudia berriro osatzeko helburuarekin.

#### Jolasaren bukatzea:

- Hasierako irudia berriro osatzen bukatzen da.



# Kalean Olgetan

- Kalean Olgetan umeek elkarrekin, plaza eta parkeetan, jolastea bultzatzea helburu duen egitasmoa da.
- 3-12 urte bitarteko ume eta gaztekoie zuzendua. 3-6 urte bitartekoek gurasoen laguntzarekin eta 7 urtetik aurrerakoak beraien kabuz moldatuko dira.
- Bi orduko saioan zehar, 17:00-19:00, jolas-kutxako materialak mailegatuko dira. Jolasa jaso eta itzutzerakoan izen-abizenak eta adina eman beharko dira.
- Herriko plaza ezberdinetan garatuko den egitasmoa da.

## Lagunekin jolasteko eguneko proposamena:

### AZERIARIK, OILOAK ETA SUGEAK

Hiru talde egingo dira (azeriak, oiloak eta sugeak) eta denen artean jolas eremu bat mugatuko da. Eremu horretan talde bakoitzak etxea non duen erabakiko du. Taldeak bereizteko koloretako zapiak erabili daitzake.

Jolas eremu hori errespetatuz, talde bakoitzak beste talde bateko jokalaritza harrapatu beharko ditu:

- Azeririk oiloak harrapatu behar dituzte, eta azerien etxera eramane. Bertan atxilotuta geratuko dira.
- Oiloek sugeak harrapatu behar dituzte, eta oiloen etxera atxilotuta eramane.
- Sugeek azeririk harrapatuko dituzte, eta beraien etxera eramane.

Atxilotuta daudenak askatzeko, libre den taldeko batek atxilotuta dauden tokira sartu beharko du.

Animalia bakoitza bere etxean sartuz gero, besteek ezin dute harrapatu.

Jokatu talde bakarra garatzen denean bukatzen da.

Azeri, unti eta belarrenekin ere jolatu daitzake. Aldera honetan, belarra direnuk geldirik dautse eta untiak baino gehiago dira. Untiok ere azeririk baino gehiago dira. Unti batak belarra harrapatzen duenean, belarra unti biltzen da. Azeri batak unti bat harrapatzen bada, unti azeri biltzen da. Komeni da oso azeri gutxi egotea eta lagun asko behar izatea. Jolasa zailago izateko, hiru untiak eskutik helduz gero azeririk harrapa ditzaketela erabaki daitzake.

ONDO PASA!



## ANTZARA JOLASA

### HISTORIA

Antzara-jolasa gelasko sagia baten zehar pizteak mugitzen dituen txalo-joko bat da, mugimenduak dagozkin erabiltzen dituen puntu kopuruari jarraitu egiten diren. Jolasa bere jatorriko bertsioan XVI. mendean sartu zen eta XIX. mendean bukatzen zabaldu zen publikoaren artean. Geroztik, aldiare aurrerantzean jolasa da, irudi-tematikako eberridietan, hala nola historia, kiroak, zientzia eta ingurumena.

### INFORMAZIO OROKORRA:

#### Jolasaren helburua:

Norberaren fitza adierazteko erabiltzen lehena izatea da.

#### Edakia:

- 63 gelasko txalo handia.
- Koloretako lau pieza.
- Dadoa.
- Informazio orria.

Jokalaritza: bi, hiru edo lau.

Irudirik adina: 5 urtetik aurrera.

#### Jolasaren garapena:

- Bi jokalarik edo gehiago har dezakete parte, bakoitza kolore eberridietako piezaekin eta txalotako pieza mugituz.
- Helburua bere pieza adierazteko erabiltzen dituen lehena izatea da.
- Gostura irudirik agertzen dituzten 63 gelaska daude; tarteka, antzara agertzen dituzten gelaskoak daude eta bertara helduz gero, antzara duen hurrengo gelaskara egiten da jolasi eta berriz ere dagozkin botatzeko aukera ematen da, "sintorarik ezinezko, beru berriro jokatu" edo antzeko esaldiak aipatuz, jokari izena ematen dionak.
- Helburuak irabazteko zehar beste irudirik dituzten gelaskoak baxuak: zubiak, jolasko gelaskoak ematen dituztenak, jolasko, non berriz jokalaritza bertatik gusa arte ezin den bertatik atera, gertatzen, non txanda kopuru bat gertatu den, dagozkin, non dagozkin berriz ere botatzen diren edota heriotza, non atxilotura itzuli behar den.





### Jasotako datuak:

DATA-EGURALDIA	<3 URTE	3-6 URTE	7-9 URTE	10-12 URTE	GUZTIRA
APIRILAK 27 PASILEKUA - EURIA	0	22	18	7	47
ARIRILAK 28 SAN KRISTOBAL - LAINOTUA	45	96	61	5	207
APIRILAK 29 SAN JUAN IBARRA - EGUZKIA	39	70	83	11	203
MAIATZAK 4 SAN JUAN IBARRA - EGUZKIA	56	56	101	11	224
MAIATZAK 5 PASILEKUA - EGUZKIA	53	16	119	9	197
MAIATZAK 6 SAN KRISTOBAL - EGUZKIA	41	121	48	8	218
MAIATZAK 11 SAN KRISTOBAL - LAINOTUA	44	125	69	8	246
MAIATZAK 12 SAN JUAN I - EGUZKIA	41	84	90	33	248
MAIATZAK 13 PASILEKUA - EGUZKIA	57	70	112	6	245
MAIATZAK 18 PASILEKUA - EGUZKIA	18	64	46	1	129
MAIATZAK 19 SAN KRISTOBAL - EGUZKIA	82	107	37	9	235
MAIATZAK 20 SAN JUAN I - LAINOTUA	28	64	61	3	156
MAIATZAK 25 SAN JUAN I - EGUZKIA	60	69	69	1	199
MAIATZAK 26 PASILEKUA - EGUZKIA	65	42	85	30	222
MAIATZAK 27 SAN KRISTOBAL - EGUZKIA	54	82	79	10	225
EKAINAK 1 SAN KRISTOBAL - EGUZKIA	53	102	50	4	209
EKAINAK 2 SAN JUAN IBARRA - EGUZKIA	61	79	62	8	210
EKAINAK 3 PASILEKUA - EGUZKIA	69	40	59	3	171
EKAINAK 8 PASILEKUA - EGUZKIA	16	53	35	2	106
EKAINAK 9 SAN KRISTOBAL - EGUZKIA	62	100	45	1	208
EKAINAK 10 SAN JUAN IBARRA - EGUZKIA	38	59	66	7	170
EKAINAK 15 SAN JUAN IBARRA - EGUZKIA	36	38	50	11	135
EKAINAK 16 PASILEKUA - EGUZKIA (36º)	15	18	11	10	54
EKAINAK 17 SAN KRISTOBAL - EGUZKIA 39º	17	15	7	9	48
IRAILAK 28 PASILEKUA - EURIA	4	0	22	5	31
IRAILAK 29 SAN KRISTOBAL - EURIA	0	0	5	0	5
IRAILAK 30 SAN JUAN IBARRA - EURIA	3	47	91	29	170
URRIAK 5 SAN JUAN IBARRA - EGUZKIA	59	104	69	19	251
URRIAK 6 PASILEKUA - EGUZKIA	57	147	72	2	278
URRIAK 7 SAN KRISTOBAL - EGUZKIA	57	88	90	8	243
URRIAK 13 SAN KRISTOBAL - LAINOTUA	63	82	80	5	230
URRIAK 14 SAN JUAN IBARRA - EGUZKIA	70	66	92	8	236
URRIAK 19 PASILEKUA - LAINOTUA	75	61	53	4	193
URRIAK 20 SAN KRISTOBAL - LAINOTUA	58	76	44	19	197
URRIAK 21 SAN JUAN IBARRA - LAINOTUA	43	90	103	12	248
URRIAK 26 SAN JUAN IBARRA - LAINOTUA	89	70	73	2	234
URRIAK 27 PASILEKUA - LAINOTUA	72	74	33	3	182
URRIAK 28 SAN KRISTOBAL - LAINOTUA	32	80	59	4	175
AZAROAK 2 SAN KRISTOBAL - LAINOTUA	51	28	64	6	149
AZAROAK 3 SAN JUAN IBARRA - EURIA	2	3	36	6	47
AZAROAK 4 PASILEKUA - LAINOTUA	31	72	29	22	154
AZAROAK 9 PASILEKUA - LAINOTUA	89	50	34	0	173
AZAROAK 10 SAN KRISTOBAL - EGUZKIA	64	133	47	8	252
AZAROAK 11 SAN JUAN IBARRA - EGUZKIA	50	94	26	16	186
AZAROAK 16 SAN JUAN IBARRA - LAINOAK	44	68	59	11	182
AZAROAK 17 PASILEKUA - EURIA/HOTZA	7	11	47	27	92
AZAROAK 18 SAN KRISTOBAL - EURIA	0	0	25	1	26

## Jasotako datuen laburpena:

48 ekintza egunetako erabiltzaileak guztira.....	8.246.
48 ekintza egunetako erabiltzaileen batezbestekoa.....	171,79.
<3 urteko 48 ekintza egunetako erabiltzaileak guztira.....	2.070.
<3 urteko 48 ekintza egunetako erabiltzaileen batezbestekoa.....	43,13.
3-6 urteko 48 ekintza egunetako erabiltzaileak guztira.....	3.036.
3-6 urteko 48 ekintza egunetako erabiltzaileen batezbestekoa.....	63,25.
7-9 urteko 48 ekintza egunetako erabiltzaileak guztira.....	2.716.
7-9 urteko 48 ekintza egunetako erabiltzaileen batezbestekoa.....	56,58.
10-12 urteko 48 ekintza egunetako erabiltzaileak guztira.....	424.
10-12 urteko 48 ekintza egunetako erabiltzaileen batezbestekoa....	8,83.

## Balorazioa:

Balorazio labur bat egiterako orduan esan beharra dugu, oso pozik gaudela 2022. urte honetako Klean Olgetan Egitasmoaren emaitzarekin.

Kalean Olgetan 2022 egitasmoa, gurasoak, umeak eta gaztetxoak, plaza eta parkeetan, elkarrekin jolasten jartzea bultzatzea helburu izan duen egitasmoa izan da. Gure ustez helburua guztiz bete da. Gurasoen aldetik ere konpromisoa nabaritu da, ekintzetan beti parte hartzeko prest egon direlako. Erabilitako baliabideak ere egokiak izan dira eta horrek helburuak betetzeari nabarmen lagundu dio.

Euskararen normaltasunaren aldeko inferentzia ez zuzena egitea eta ez ume eta gaztetxoan artean bakarrik, baita ama, aita, amona, aitona edo haur horrekin dagoen helduarengan ere egiteari dagokionez, plazetan giro euskalduna sortuta, euskara hutsean banatutako fitxak eta euskaraz emandako azalpenekin era positiboan zabal eragin dela azpimarra dezakegu.

Euskararen normalizazioari eta erabileraren sustapenari dagokionez, egin den guztia euskaraz garatu da, horrela, guk izan dugun helburu garrantzitsuenetako bat beteaz.

Antolaketa mailan, antolakuntzan ez dugu arazorik izan. Batetik, programatutako eginbeharrak aurretiaz adostutako epeetarako bete dira, eta bestetik, materialak eta erosketak sasoiz heldu dira.

Begiraleek beraien eginkizuna garatzerako orduan ez dute arazorik izan, giro on eta alai medio, parte hartzaileak une oro txandak errespetatu eta jolas giroan murgildu direlako. Aipatzeko San Juan Ibarra Plazako ekintzetan 3. begirale bat jarri dela erabiltzaileen bolumenagatik.

Etorkizunean gune gehiagotara zabaltzea ondo legokeela ikusten dugu. Ekintzetako partaidetza oso altua izan da aurreikuspenak aski gaindituz (50 erabiltzaile gutxienez) %83 eta gainontzeko %17 horretan, argi eta garbi ikusi da, arrazoia eguraldi txarraren eraginagatik izan dela. Ekintza guztietan egon den giroa oso ona izan da, lantaldeko kide, guraso, ume zein gaztetxoen artean. Egitasmoa dela eta guraso askoren zorionak eta egitasmoarekin aurrera egiteko eskariak ere jaso ditugu.

Bai partaidetza, zein erabilitako metodologiatik jasotako emaitza onak etorkizunerako kontutan hartzekoak dira.

### **Aipatzeko puntuak:**

- Egitasmoak heldu, ume eta gaztetxoen artean harrera oso ona izan du.
- Orokorrean heldu, ume eta gaztetxoen artean partaidetza oso altua izan da.
- Jolasguneetan euskararen normaltasunaren aldeko inferentzia ez zuzena egiteko zeharkako tresna eraginkor eta egokia dela argi eta garbi ikusi da.

## Argazkiak:

**Oharra:** ondorengo argazkiak Kalean Olgetan 2022 egitasmoan jasotakoak dira. Argazki hauek Kalean Olgetan 2022 egitasmoko txostenerako bakarrik erabiliko dira eta horrela, AEIOU Busturialdeak Gernika-Lumoko Udalaren Euskara Arloaren zaintzapean uzten ditu.





